

**EUSKO JAURLARITZA**



**LEHENDAKARITZA**

Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

**GOBIERNO VASCO**

**PRESIDENCIA**

Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica

**EAEKO BIZTANLERIAREN  
IRITZIA KALE  
INDARKERIAREN INGURUAN**

**(HERRIZAINGO SAILA)**

**2003ko uztaila**



[http://www1.euskadi.net/estudios\\_socilogicos](http://www1.euskadi.net/estudios_socilogicos)

## Índice

SARRERA .....	1
LABURPENA .....	4
FITXA TEKNIKOA .....	6
A – KALE INDARKERIA EKINTZEN MAIZTASUNA.....	8
B – URRITZEAREN ARRAZOIEN IDENTIFIKAZIOA.....	10
C – AREAGOTZEAREN ARRAZOIEN IDENTIFIKAZIOA .....	12

# Sarrera

## Helburuak

Txosten honen helburua EAEko biztanleek **kale indarkeria ekintzen maiztasunari** buruz duten iritzia aztertzea da. Horretarako herritarrei galdegin zaie bai ekintza horiek areagotu edo urritu izanaren sentsazioari buruz, baita areagotze edo urritze horren arrazoiei buruz ere.

## Informazio Iturria

Ikerketa honen emaitzak **22. Euskal Soziometroan** sartutako berariazko galdesorta batetik datoz. *Euskal Soziometroa*, momentuko euskal errealitate sozialaren azterketa periodiko eta zabalago bat da.

Galdera zehatzak **Herrizaingo Sailaren** eskaera baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean. Ikerketa honen fitxa teknikoan aipatzen den bezala, galdeketa diseinurako elkarlan hori eta landa lan zehatza ezik (azken hau kanpoko enpresa bati agindu zaio), beste lan guztiak, bai aurretiazko diseinua, bai azterketa estatistikoa eta baita txostenaren idazketa eta edizioa bera ere Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik.

## Galak

- A - KALE INDARKERIA EKINTZEN MAIZTASUNA: Kale indarkeria ekintzen maiztasunaren bilakaerari buruzko iritzia.
- B - URRITZEAREN ARRAZOIEN IDENTIFIKAZIOA: Kale indarkeria ekintzen maiztasuna urritu izanaren arrazoi nagusiak.
- C - AREAGOTZEAREN ARRAZOIEN IDENTIFIKAZIOA: Kale indarkeria ekintzen maiztasuna areagotu izanaren arrazoi nagusiak.

## Zehaztapen metodologikoak

Datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai EAerako eta baita lurralde bakoitzerako ere, lagin adierazgarri egokia erabiliz eta inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia obehitibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: Batetik 2001eko Hauteskunde Autonomikoetako botoaren banaketa erreala eta bestetik adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizial errealak. Datuen parekotasuna EAEn ezezik lurralde bakoitzean ere egiaztatu da.

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean **ezezik segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoan** arabera ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagai soziodemografiko eta jarrerazkoak, hau da, inkestako gizarte taldeak desberdintzen dituzten galderak, taulen zutabeetan azaltzen dira, dagokion adierazle soziologikoen desberdintasun adierazgarriak sortzen dituztenean. Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpialdeak kurtsiban azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa*.
- Sexua: *Gizonezkoa* eta *emakumezkoa*.
- Adin taldea: *18-29, 30-45, 46-64* eta *>=65*.
- Udalerriaren tamaina: *Txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle: Vitoria-gasteiz, Bilbao eta Donostia-San Sebastián).
- Jatorria: *Etorkina* (Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo jaiotakoa), *bertakoa familia etorkina* (EAEn edo NFKn jaioa aita eta ama etorkinak), *bertakoa familia mistoa* (EAEn edo NFKn jaioa aita edo ama etorkina) eta *bertakoa familia bertakoa* (bai bera baita ama eta aita ere EAEn edo NFKn jaiotak).

- Ikasketa maila: <lehen mailakoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak, goimailakoak.
- Lanbide nagusia: *Lan ordaindua, langabezia, etxeko lanak, ikaslea eta jubilatua.*
- Norberak hautemandako klase soziala: *baxua* (erdiko-baxua edo langilea), *erdikoa* eta *altua* (erdiko-altua edo aberatsa).
- Euskararen ezagutza: *Ez* (ez daki batere hitz egiten), *pixka bat* (hitz batzuk dakizki edo pixka bat hitz egin dezake) eta *bai* (nahikoa ongi edo ongi hitz egiten daki).
- Euskaldun-espainol ardatza: *Batez ere Euskal Herrikoa* (Euskal Herrikoa bakarrik + Euskal Herrikoa Espainiakoa baino gehiago), *Euskal Herrikoa bezain Espainiakoa* eta *batez ere Espainiakoa* (Espainiakoa Euskal Herrikoa baino gehiago + Espainiakoa bakarrik).
- Politikarekiko interesa: *Batere interesik ez, ez interes handirik, nolabaiteko interesa, interes handia.*
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerrekoa* (ezker muturrekoa + ezkerrekoa + zentro ezkerrekoa), *zentrokoa*, *eskuinekoa* (eskuin muturrekoa + eskuinekoa + zentro eskuinekoa) eta *ed/ee*.
- Euskal nazionalismo sentimendua: *Bai, ez eta ed/ee.*
- Sinpatia politikoa: *EAJ-PNV, PP, PSE-EE, BATASUNA, EA, IU/EB, UA, Aralar, beste partidu batzuk, batere ez, guztiak eta ed/ee*<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> UA eta Aralarri dagozkien datuak ez dira komentatuko, kasu guxi direla eta konfiantza maila oso baxua delako.

## **Laburpena**

**EAEKO HERRITARREK KALE INDARKERIA AREAGOTU EDO GUTXITU EGIN DELA  
ANTZEMATEN DUTE?**

Oro har EAEko biztanleek azken urteekin alderatuz kale indarkeriaren murrizketa nabaritu dutela esan dezakegu (%48). Ia heren batek (%32) aldaketa nabarmenik ez dela gertatu dio.

**ZERGATIK GUTXITU DA KALE INDARKERIA?**

Kale indarkeria ekintzak gutxitu direla uste dutenen %23k zigorrak gogorragoak direlako murriztu direla uste dute eta %21ek herritarrek kale indarkeriari laguntza txikiagoa ematen diotelako gutxitu direla.

**ZERGATIK AREAGOTU DA KALE INDARKERIA?**

Kale indarkeria gehiago dagoela uste dutenek areagotze horren arrazoi nagusizat hartzen dituzte era horretako ekintzak nahikoa zigortuta ez egotea (%28) eta poliziaren zaintza txikiagoa izatea (%25).

## **Fitxa teknikoa**



Informazio bilketa 2003ko apirilaren 1a eta 15a bitartean egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

Lagina, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 610 pertsona Araban, 1261 Bizkaian eta 968 Gipuzkoan, beraz, 2839 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. **Gizabanakoen hautaketa** prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin<sup>2</sup>-, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaizak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2001eko Hauteskunde Autonomikoetako boto errearen arabera haztatu dira.

Informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

**2839 pertsonako lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa**, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria,  $\pm\%1,88$ koa da EAE osorako,  $\%95,5$ eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik.

Inkesten  $\%58,3$ an telefono bidezko kontrola egin da eta  $\%4,3$ a etxean bertan kontrolatu dira. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak-.

---

<sup>2</sup> Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale “zatien” multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiak), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

## **A - Kale indarkeria ekintzen maiztasuna**

## Kale indarkeria ekintzen maiztasuna

(GUZTIRA ETA TALDEKA)

*Segidan, kale borroka ekintzak (kutzazain, ibilgailu, edukiontzia erretzea edo bestelako istiluak), aurreko urteekin konparatuz, gehitu, gutxitu edo berdin jarraitzen dutela uste duzu?*


	EAE SV APR 03	LURRALDEA			BEGIKOTASUN POLITIKOA												
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAJ/ PNV	PP	PSE-EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE PLATAFORMAK	ARALAR	EA	IU/EB	UA	BESTE PAR- TIDU BATZUK	BATERE EZ	GUZTIAK	Ed/Ee	
GEHITU EGIN DIRA .....	11	16	13	6	7	24	15	3	3	6	7	35	11	15	13	7	
GUTXITU EGIN DIRA .....	48	40	44	59	56	32	43	63	64	63	57	43	39	40	41	47	
BERDINAK GERTATZEN JARRAITZEN DUTE.....	32	39	31	30	29	33	33	26	32	28	29	18	31	37	38	35	
Ed/Ee .....	8	5	11	5	8	11	8	8	0	4	6	4	19	9	8	11	
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

EAEKO BIZTANLEEN IA ERDIAK (%48) ORAIN DELA URTE BATZUK BAINO KALE INDARKERIA EKINTZA GUTXIAGO DAUDELA USTE DU, %11AK AREAGOTU EGIN DIRELA USTE DU ETA %32K BERDIN JARRAITZEN DUTELA.

Kale indarkeria ekintzak urritu izanaren ustea gipuzkoarren artean dago hedatuena, ia %60ak duela urte batzuk baino gutxiago daudela dio.

PP eta UAko jarraitzaileen artean, era horretako ekintzak areagotu direla uste dutenen talde handi xamarra daude (%24 eta %35 hurrenez hurren). Aralarren, ezker abertzaleko beste taldeen eta EAren jarraitzaileen artean berriz, gehiago handi batek duela urte batzuk baino kale indarkeria gutxiago dagoela uste du (%64, %63 eta %63 hurrenez hurren).

Kale borroka ekintzak, ¿ gehitu egin dira, gutxitu egin dira edo berdin jarraitzen dute?



Gehitu egin dira       Berdin ak gertatzen jarraitzen dute  
 Gutxitu egin dira       Ed/Ee

## **B - Urritzearen arrazoien identifikazioa**

## Urritzearen arrazoen identifikazioa

(GUZTIRA ETA TALDEKA)

Jarraian irakurriko dizkizudanetatik, zein da zure ustez gutxitze horren arrazoa? (Gutxitu direla uste dutenei bakarrik galdetu zaie)													
	EAE	BEGIKOTASUN POLITIKOA											
	SV APR 03	EAJ/ PNV	PP	PSE-EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE PLATAFORMAK	EA	IU/EB	UA	ARALAR	BESTE PAR- TIDU BATZUK	BATERE EZ	GUZTIAK	Ed/Ee
POLIZIAREN ZAINGOA HANDIAGOA IZATEA .....	14	13	20	18	8	12	11	0	5	0	19	25	11
ERA HONETAKO EKINTZAGATIK ZIGORRAK GOGORRAGOAK IZATEA .....	23	23	33	33	29	23	17	56	19	0	15	12	25
EKINTZAILE TALDEAK AHULDU DIRELAKO .....	17	19	13	13	9	20	27	0	12	18	20	9	7
HERRITARREK KALE BORROKARI LAGUNTZA TXIKIAGOA ESKAINTZEN DIOTELAKO.....	21	26	14	18	17	25	24	44	34	25	17	21	21
BESTELAKO ARRAZOIAK .....	13	9	12	9	24	8	16	0	29	38	14	4	14
Ed/Ee .....	12	10	8	10	13	12	6	0	1	20	15	29	23
(EHUNEKO BERTIKALAK) .....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

KALE INDARKERIA EKINTZA GUTXIAGO IZATEAREN ARRAZOIEI BURUZKO IRITZIA NAHIKOA SAKABANATUA DAGO: EKINTZA HORIEK GUTXITU DIRELA USTE DUTENEN %23K, GUTXITZE HORI HORRELAKO EKINTZENGATIK ZIGOR GOGORRAGOAK JARTZEN DIRELAKO GERTATU DELA USTE DUTE; %21EK HERRITARREK KALE BORROKARI LAGUNTZA TXIKIAGOA ESKAINTZEN DIOTELAKO GERTATU DELA; %17K EKINTZA HORIEK EKINTZAILE TALDEAK AHULDU DIRELAKO URRITU DIRELA DIO ETA %14K POLIZIAREN ZAINZA HANDIAGOARI EGOZTEN DIO. %13K USTE DU BESTE ARRAZOI BATZUK DIRELA ETA GUTXITU DIRELA EKINTZA HORIEK.

PP, PSE-EE eta ezker abertzaleko zenbait talderen jarraitzaileek kale indarkeria ekintzengatik jartzen diren zigorrak gogortzea azpimarratu dute ekintza horiek urritu izanaren arrazoi nagusi bezala (PPkoen %33k, PSE-EEkoen %33k eta ezker abertzaleko batzuen %29k). EAJ-PNVko, EAko eta Aralarreko jarraitzaileek aldiz herritarren laguntza txikiagoa aipatu dute batez ere arrazoi nagusitzat (%26, %25 eta %34 hurrenez hurren). IU-EBkoek kale indarkeria ekintzaile taldeak ahuldu direlako gutxitu dela adierazten dute (%27).

## **C - Areagotzearen arrazoien identifikazioa**

## Areagotzearen arrazoen identifikazioa

(GUZTIRA ETA TALDEKA)

**Jarraian irakurriko dizkizudanetatik, zein da zure ustez gehitze horren arrazoi nagusia? (Gehitu direla uste dutenei bakarrik galdetu zaie)**

	EAE SV APR 03	LURRALDEA			ADIN TALDEA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65
POLIZIAREN ZAINGOA EDO BIGILANTZIA TXIKIAGOA IZATEA.....	25	28	28	10	16	18	35	35
ERA HONETAKO EKINTZAK NAHIKOA ZIGORTUTA EZ DAUDELAKO.....	28	27	30	21	21	35	23	31
EKINTZAILE TALDEAK INDARTU DIRELAKO .....	18	21	14	32	32	19	14	7
HERRITARREK KALE BORROKARI LAGUNTZA HANDIAGOA ESKAINTZEN DIOTELAKO ...	5	7	4	8	8	3	6	3
BESTELAKO ARRAZOIAK .....	15	12	16	17	15	21	12	10
Ed/Ée .....	9	5	9	12	9	3	10	15
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100

- KALE INDARKERIA EKINTZAK GEHITU DIRELA USTE DUTENEN %28K EKINTZA HORIEK NAHIKOA ZIGORTUTA EZ DAUDELAKO AREAGOTU DIRELA USTE DUTE. BESTE %25EN IRITZIZ POLIZIAREN ZAINZA GUTXIAGO DAGOELAKO AREAGOTU DIRA NAGUSIKI EKINTZA HORIEK ETA %18K DIOTE HORRELAKO EKINTZAK EGITEN DITUZTEN TALDEAK INDARTU IZANA DELA ARRAZOI NAGUSIA. %5EK USTE DUTE HERRITARREK KALE BORROKARI LAGUNTZA HANDIAGOA ESKAINTZEN DIOTELAKO AREAGOTU DELA.
- Gipuzkoarrek, bizkaitar eta arabarrek ez bezala, indarkeria mota hori erabiltzen duten taldeak indartu izana azpimarratzen dute (%32), zigorren nahikotasunik eza (%21) eta poliziaren zaintza txikiagoaren (%10) gainerik.
- Adinean aurrera egin ahala, gehiago dira kale indarkeria ekintzak ugaltzearen arrazoi nagusizat poliziaren zaintza gutxiago egotea eta zigorren nahikotasunik eza aipatzen dutenak. 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %32k areagotze hori gertatzeko arrazoi nagusia ekintzaile taldeak indartu izana dela uste du.